

MACCHI SPA


OPTIMIZACIÓN DE LA PRODUCCIÓN A TRAVÉS DE LA MULTIFUNCIÓN

Antoni Michael Caprioli

- MACCHI SPAko Zuzendari Gerentea -



Nahiz eta duela hilabete batzuk soilik hasi garen lanean SORALUCErekin, esan dezaket, une honetara arte, beraiengandik nahi duguna bikaintasunez betetzen dutela. Manipulazio denbora txikiagoa behar duenez, produktu hobea lortzen da kostu txikiagoarekin, baita produktibitate handiagoa ere, izan ere pieza kopuru handiagoa mekanizatu daiteke, ohiko denboraren erdia erabiliz eta hornitzen ditugun produktuen aukera handituz.





Antoni Michael Caprioli
- MACCHI SPAko zuzendaria -

MACCHI, SOFINTERen dibisioa operatiboa, 55 urte baino gehiagoko historiarekin, enpresa liderra da eta esperientzia handiko bezain aktiboa mundu mailan, petrolio/gas eta galdara industrialen osagarrietan zein beroa berreskuratzeko lurrin sorgailuetarako eta kogenerazio instalazioen hornikuntzan. Berriki erosi diote haien lehen makina SORALUCEri torneaketa eta fresaketa set-up bakarrean egiteko.

Zergatik aukeratu duzu SORALUCE zure bazkide izateko?

Bilazen genbiltzan makina bat gai izango zena torneaketa zein fresaketako operazioak makinaren konfigurazio bakarrarekin egiteko. Horrek, oinarrian, honakoa ahalbidetzen du: fidagarritasun maila handiarekin eta konfigurazio bakarrarekin, makinak egitea lortzen ditu normalean pertsona eta makina gehiagoren inplikazioa behar duten prozesu guztiak.

Prozesua lotualdi bakarrean egiten da, ondorioz, doitasuna beti da bera. Manipulazio denbora txikiagoa behar denez, produktu hobea lortzen da kostu txikiagoarekin, baita produktibitate handiagoa ere, izan ere pieza kopuru handiagoa mekanizatu daiteke, ohiko denboraren erdia erabiliz eta hornitzen ditugun produktuen aukera handituz. Egitate bat da produkzio katea pasa zela 300etik gehienez 1.800eko gaitasunera, eta horrekin ordura arte kompetentziaren esku zegoen merkatu baten parte hartu ahal izan zuela.

BIMATEC-SORALUCE bisitatu duzu, Alemanian dugun Bikaintasun Zentroa. Zein izan da zure inpresioa?

Makinaren erosketa itxi aurretik, SORALUCEk adeitasunez gonbidatu gintuen Alemanian duen Bikaintasun Zentrora eta bertan aukera izan genuen hainbat aplikazio ikusteko, gure instalazioetan geroago egingo genuela suposatzen zena simulatzen. Froga horiek amaitutakoan, gaindiezinak ziren doitasun mailak ikusi genituen.

Zer esan diezagukezu makinaren fidagarritasunaren inguruan?

SORALUCErekin izandako negoziatioetan gure negozio beharrak azaldu genizkien: sakontasun handiko fresaketa edo mandrinaketa eskatzen duten konplexutasun handiko piezak sortzea, eta jakina, konfigurazio bakarrarekin.

Ez genuen nahi, inola ere, SORALUCEk eskaintzen dituen ohiko soluzioak gaitziteza, estandarizazio kontzeptuaren barnean jarraitzeko helburuz. Zer esan nahi duen horrek guretzat SORALUCEko bezero moduan? Oinarrian esan nahi du makina fidagarri bat edukitzea.

Zer nabarmenduko zenuke SORALUCErekin duzun esperientziatik?

Nahiz eta duela hilabete batzuk soilik hasi garen lanean SORALUCErekin, esan dezaket, une honetara arte egindako pieza guztiek bikaintasunez betetzen dituztela gure eskaerak.

